

- Xixtuka berriz maxina abiatu zelarik bizkitartean, ixil ixila itzuli ziren oro, zoin bere ogi-jotzeko tokira. Bainan, goizean ere baino kar gutiagorekin lotuak ziren lanari; eta, Xoilok bere orratzari ez bethi aski hurbildanik behaturik, gogoa galdurik ari zelakotz hura ere noizetik noizera, gelditzerat egiten zuen maxinak. Intzire-dolamen bat aditzen zen
- 5 orduan; lotarik iratzartzen bezala zen su-berotzailea. *Xixtuk* xehatu egurrak, ongi jakin ere gabe zer ari zen, sartzen ziozkan labeari; eta, abre bat iduri, berea berriz izanik, arroaz emaiten zen lehenagoko behien orde lan gogorrean ari zen tresna gorritua. Arratsaldea bazoan holaxet. Iguzkia Helbarrongo kaskoeri hurbila aphaltzen ari zen, gorri gorria, aintzinagoko gau *guziez ilhargia bezala*. Sei orenak jo zuten herrian, eta azken
- 10 maltxoak eskuan jada hartua zuen Xabatenek, noiz eta ere, betbetan, jendeak, etxeak, kanpoak oro harrotzen zituela, harrabots bat altxatu baitzen, han, herrian, zinez ikaragarria, lazta bat emaiten ziotela berehala orori...
- Dan, dan, dan*, eliza-dorretik, ilhun ilhuna, hasperen bat erranen baitzen egiazki, ezkila nigarrez ari zen bere senpertar maiteeri, eta mixteriozko haro bat eraiki zen berehala
- 15 zoko guzietarik...
- Dan, dan, dan! Dan, dan, dan!*...Su-deia ari zen bethi'ta ilhunago. Sua ba, eta su ikaragarria, eta ez gehiago Zirikolatzen edo Garramunen, bainan bai Euskal-Herrian, Frantzian, kasik lur guzian!...
- Oihanaldeko gizonak, zuri zuria egin ziren; elgarri begira eman ziren, hitz bat ere gabe...
- 20 Nigar bat jali zitzaioten zenbeiti. Beren meta-lastoaren gainean, Martinek, Piarresek kurutzearen seinale bat egin zuten ithoka.
- Atalasean, xuri xuria hek ere, agertu ziren Gaxuxa, Marie, Goaña Lizartzakoa...
- Hainbertzenarekin, atabala karrikan ari zen, zinez izigarri tenore hartan. "*Plan, ran, plan! Plan, ran, plan!*"...
- 25 Zurubietarik jaustera zoan Piarres. Atabalaren ukaldi bakotxa bihotzean sartzen zitzaion, erdi erdiraino. Behatu zioten bere aitari, bere amari... Eta ama hura, bi eskuak begien gainean emanik, nigarrez ari ikusi zuen semeak. Marie, Goaña, ama gaixoaren aldean xutik han zagozin. Beren amodioa baizik ez ziozoketen eman Gaxuxari, eta guzia hura emaiten zioten, ari besarka lothuak maiteki...
- 30 Nigar batean gelditua zen maxina, nehork begiratzen ere ez ziola gehiago.
- Begiak zorrotz heldu zen orai Thomas bere langileetara:
- "Hots, muthikoak! Oro baino gorago duk Jainkoa. Lagunduko gaitik!... Gorphutzak behar dik berea; ahamen bat iretsiko bederen duzue, eta, gero joanen zaizte, zoin bere alde... Engoitik, zuen etxe horietan ere zuen beharretan dituk..."
- 35 Eta gero, itzuli zen aita bere seme maiteari buruz, eta, ezti ezti, halako ikare bat mintzoan, erran zion:
- "Zoazi, Piarres, eta jakinazu sobera baizik ez dakigun berri madarikatua. Eta, *harat* ernatzerik balin baduzu ez ahantz jaun erretoraren etxean iragaitea dukezula lehenik..."
- Hitz bat erran gabe, xoko batean bere soinekoa harturik, athorra-lephoa hetsi zuen
- 40 doi doia Piarresek, eta herrirat buruz urrundu zen gero berehala, xorrotx xorrotxa begiak harek ere...
- Eta, oren laurden bat gabe, ithoka zerbeit janik, alderdi guzietarat ohildu ziren Oihanaldeko langileak oro. Herrian, ezkila, atabala bethi ari ziren: bihotza ereman nahi zioten guzieri.
- 45 Oren bat eta erdiren buruan, Piarres Oihanalderat heltzen eta, Lulaiko patarrari behera jausten sumatu zuen *Letxero* Arrangoitzkoa, bere turrutarekin halako aire hits bat emaiten ari: *La Générale!*... Etsaia ja hurbil hurbila emaiten ohi den airea!...
- (...)
- Sukalde handian sartzearekin, nahiz bero ari zuen oraino kanpoan, oro elgarren ondoan
- 50 supazterrean jarriak kausitu zituen. (...) Bultza bat ixil ixila egon ondoan, aítak ezti ezti

behaturik, hasi zen beraz Piarres, eta erran zuen nola , hura herrirat heltzearekin, jandarmak paper handi batzuen hedatzen ari ziren, han hemenka, paretetan. Paper xuri haren kaskoan, bi bandera baziren kurutzean emanak, eta bandera heien azpian larri larri hauk: "*Ordre de Mobilisation Générale*".

Piarres I, Jean Barbier
Euskal Editoreen Elkartea, 1992

COMMENTAIRE GUIDÉ:

Idazki honen azterketa eginen duzu gogoeta-ardatz hauen inguruan:

- berri ikaragarriaren inguruko giroa herrian, zentzumenen bidez.
- familia eta ingurukoen arrangura
- baserri munduko elkartasuna

TRADUCTION:

Zati honen frantsesezko itzulpena eginen duzu:

"Zurubietarik jaustera zoan "-tik... "xorrotx xorrotxa begiak harek ere..."-raino.